

Goibek
kale

Elgetako aldiizkaria apirila 35zk.

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1^a EZK.



OHITURA ERROTUA

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Egiñ geinke

Aurreko alian egiñdako eskakizunai aurre egittera najoia ta Elgetako eus-kera garbixan egiñgo juat hau idatzi-xau.

Nere lagun batzukin berbetan najauan fan zan gaba baten ta batek esan juan:

...egiñ geinke ezta?... Eta guk preguntau gontzan:

...bainā zelan "geinke",

Elgetan egiñ leikejuau esaten bada?

Orduan beste berba batzuk etara giñuzen ta harek esan juan eurixa jiharduk (Elgetako erara) ta ez eurixa jaok edo jabik. Ta loguriak najaok edo gosiak najaok; loguria jakat edo gosia jakat esan biharrian.

Ta holaxe, galdetu jostan ia kapaz nitzuan Elgetan egitten dan modura berba egitteko. Nik baietz esan najotzan ta Elgetan Elgetako erara egiñgo najuala.

En fin Serafin, bakotxak nahi daben moduan berbetan egiñ.

Maiz

Herriko balkoi baten superbibentzia

Nahi nuke aldizkariko tarteā honetan baliaturik, kexa bat adieraztea.

Dakizuenez, Salbador Kalean dauden balkoiak arazo eta eraso handiak dituztela, konkretuki eta gure kasuan, Salbador Ieko 1 pisuko balkoiak.

Hauxe da pasatzen dena: gaizki aparkatutako kotxeen erruz, kamioiak pasatzen direnean eta kotxeak ez jotearren, ez direla konturatzten beste aldeko balkoiarekin, hau jo arte.

Atzenengo lau urtetan zortzi bider pasatu da berdina. Gustatuko litzaiaguke "gaizki aparkatzen duen jendeak" kontzientzia pixkat edukitzea besteengan, gure balkoia kontutan harturik.

Kokoteraino gauden bi

Asentzioko Auzo Batzordeak?

Ez beza berorrek uka begi bistan dagoe-na eta ez beza ipini besteen ahotan esan

ez dutenik. Gure aitonak eta batzordeko beste batzuk, eta batzar hartan egonik, ez zekiten eskutitza agertuko zenik eta ez zuten beraien iritzia emateko aukerarik izan. Beraz batzordearen izenean sinatzea nolatan? Noren izena garbitu nahi zen?

Arriskutsua da norbere hitzak besteen ahotan ipintzea adostasunik ez dagoenean eta arrazoiā falta zaiola ikusita are gehiago.

Baina badu arrazoi berorrek, gauzak argitu zirela esatean, dirua itzuli delako azkenean, sekula falta behar ez zen lekura. Erraztasunekin gainera dirua bi epetan ordaintzeko aukera izango baitu. Ez zegoen susmo txarrik aurreko eskutitzean, susmo txarrik eta mesfidantzak orain agertzen dira tamaina honetako zurikeriaren aurrean.

Egia bakarra da, pertsona horrek oraindik orain justifikatu ez duen arrazoiagatik 75.000 pta hartu zituela.

Beste batzun narruakin sahaigaxa be egiñ leike!

Eta ez dudarik izan,

Baserritar baten iloba naiz

6 hilabeteko kartzela zigorra eta 10 urteko inhabilitazioa

Maiatzak 18an, Bittor Gallastegi, aldizkariko make-tatzailea, epailearen aurretik pasa zen soldaduzkari ezetza esatearren. Fiskalak sei hilabeteko kartzela zigorra eta hamar urteko inhabilitazioa eskatu zituen. Bittor ez da epaiketa antzu hauek jasango dituen elgetar bakarra. Azken aldian ugaritu egin dira gure herriko gazteen artean objektore eta intsumisoak. Bide honen balioa gero eta gazte gehiagorengana heltzen ari da.

Aurten 190.000

gazte zozketatu dituzte. Sarri entzun izan dugu intsumisioa ez dela delitua, baina oraindik, intsumiso guztiak dira epaituak eta zigortuak. Militarismoaren aurkako intsumisioak, gaur inoiz baino gehiago, izateko arrazoirik baduela ikusirik militarismoak dakarrena zalantzan jartzeko bide-etariko bat aukeratu du Bittorrek.

Arrazoiak ez ditu falta eta halaxe jakinarazi zion Donostian epaitu zuen juezari ere. Intsumiso zergatik egin zen galdetu zio-

tenean, "Azken finean beste borroka bide bat, propaganda, eztabaida, mobilizazioa eta gainontzeko borroka bideekin batera eraman behar dena. Azkenean soldaduzkarekin eta ejerzitoe-kin bukatzeko eta gure bizitza eta gizartearen arlo guztietatik militarismoa kanporatzeko." erantzun zion. Antimilitarismoagatik galdegin zitzaionean aldiz "antimilitaristok nahi dugun gizarte librearen kontrakoa irakasten dute ejertzitoan: ezberdina gorrotatzen, atzeritarrak

etsaiak direla, emakumea mesprezatzen, beste soldaduak baino askoz hobe eta ausartagoa izaten bainan batez ere pentsatu gabe obeditzen irakasten da, azpikoak eta nagusiak dau dela eta hauen mandatuak bete behar direla, hierarkia hauek naturalki onartzen eta hitz baten esana "sumisoa" izaten irakasten da ejerzitoan".

Aldizkariko lankideak ere berarekin batera zalantzan jartzen dugu injustizi hau.

Goibekokaleko lagunak

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Zergatik ez?

“Zergatik ez?”, udako kanta izaterako bidea daraman abesti baten leloa izateaz gain, geure buruari sarriagotan egin

beharko genion galdera da. Segidan azalduko dizuet zergatik.

Eguneroko bizitzak, errutinak, gauzak pentsatu gabe onartzera bultzatzen gaitu. Geure buruari gauza gehiegi planteatzeke bizitzera ohitu gara, ze, egia esan, egunero zerbait jan, lo eta lan egiteak ez dauka buruhauste handiagoren beharrik. "Pasibitate" intelektual edo filosofiko honi eutsiz (nahi duzuen bezala deitu), hainbat eta hainbat egoeratan gehiengoan ikusten ditugun jokabideak zuzenean ontzat hartzen ditugu. Era berean, ohikoa ez dena edo normaltasunik piskat desbideratzen dena, homosexualitatea edo sexu anizkoitasuna, esaterako, "txarra da" edo "ez dago ondo". Ez dugu nahi horrelakorik guretzako.

(Badago kontrakoa egiten duenik ere, originala izan nahi eta, guztiak pasatzen uzten dituen, baina ni ez naiz horretan sartuko).

Gaur, Goibekokaleko kolaboratzaileen atal honetik zuen aurrera ekarri nahi dudana zera da, badauzkagula "arau" edo konbentzionalismo pila buruan, benetan ezertarako balio ez dizkigutenak, kontzientziak hartu ez ditugulako, edo batek daki... Gauzak horrela, "Zergatik ez?" hau planteiatzeak asko lagundu lezake. Zetarako? ... Kantuaren leloak badauka bere jarraipena, eta "Aska zazu, aska zaitez" dio gainera.

Norberak ipini ditzala mugak.

Geure esku dago udako kantuari kasu egitea edo ez, baina, ene uste apalean duda metodikoak Deskartesi hainbesterako balio izan bazion, geuri "zegatik ez?"

Ibane Abasolo Olaortua



Enpatia

Enpatia, pertsona batek bestearen lekuan jartzeko duen gaitasun edo kualitatea da. Beste pertsona baten ideia eta sentimenduak argi aeta garbi ulertzea

da. Norbere iritziak alde batera utzi eta bestearen ikuspuntu, sentimendu, motibazio eta egoera ulertzeko egiten den ahalegina da. Horregatik enpatikoa izateko ezinbestekoa da oharmen sarkastiko burlari edo akusasiozkoak saihestea.

Enpatia haserrearen sendagaia da. Besten pentsamenduak eta ekintzak zehatz-mehatz ulertzeko behar bezainbeste denbora hartzen baduzu, enpatikoagoa izateko ahaleginak egiten arituko zara.

Gizakiaren arteko harremanetan ez da oso ohikoa izaten, pertsona enpatiko bat topatzea, besteak esaten digun ia guztiari kritikak eta balorazioak egitera ohituak baikaude, eta pertsonak esaten digunaren egiazko ulermena baino, irizpenak eta aholku gehiago erabiltzen dugu, portaera honek enpatia on batek lortu beharko lukeen kontrakoa eragiten du.



Gurekin enpatikoa den pertsona bat aurkitzen dugunean, berehala antzematen dugu, esaten ari gatzazkiona baldintzarik gabe onartzen baikaitu, lasaitasun eta konfidantza giroa bat batean saortarazten da, eta ulertu eta lagundu gaituela sentitzen dugu.

Beste pertsona den bezelakoa baldintzarik gabe onartzeak, bere larruan bageunde bezala sentitzeak, ulermen eta tolerantzia-prozesuak sortarazten baitu eta honek koalitate bat dakar errespetua.

Enpatian egunero ihardutea norberaren aurrerapen izateaz gain gizartearen aurrerapen ere bada. Ikastegi eta etxean txikitatik ezberdintasunak iritziak... gutxiago epaitzen eta kritikatzin erakutsi behar litzaiguke, eta aldiz gehiago ulertzen eta errespetatzen, honela litekeena da gure gizartea jasaten ari den halako hotsasunik eta insolidaritza ezarik ez izatea.

"Bizi" aldizkariko artikulua baten laburpena.

M^a Elena Estenaga



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Herri kirola eta haurrentzako programa aipagai aurtengo jaietan

Gaztelua, zezen mekanikoa, dantza eta marrazki lehiaketak, kale animazioa, haurrentzako play-backa, ... herriko haurrek gustoko dituzten gauzak izango dituzte jaietan. Jai batzordea, ekintza berri batzuk antolatzeko saiakera egiten ari da, hauen artean aipagarrienak aerobitona eta herri kirolak.

Aurtengo Azoka Nagusian ekintza ugari egongo dira elgetarrontzat. Batez ere haurrentzat ekintza ugari antolatu ditu jai batzordeak. Eguenean dantza lehiaketa, barikuan marrazki lehiaketa goizez eta arratsaldean kale animazio talde bat etorriko da. Zapatu arratsaldean play back lehiaketa eta bizikleta lasterketa. Haurrentzako ekintzak aurrera eramateko jai batzordeak Guraso Elkartearen laguntza izango du. Ekintza hauetako asko beraiek antolatu dituzte.

Azken urteetako programetatik kendu den ekintza bakarrenetakoa nagusientzako play backa izan da, partaidetza urria izaten zen eta. Aspaldiko partez herri kirolak ere izango du bere lekua aurtengo jaietan.



Baserrietako bideak gero eta okerrago

Baserritarren Batzordeak 1.990ean baserrien artean dauden hormigoizko bideetatik kamioi eta traktore handiak pasatzeko, Udal Baimena behar dutela erabaki zuen. Udal baimena lortzeko diru tasa bat ordaindu behar dago.

Azken hilabetetan, baso batzuetako zuhaitzak ate-

ratzera joandako kamioak, inolako baimen eta tasarik ordaindu gabe ibili dira bideetan. Kamioi hauek, kasu ba-tzuetan bidai asko egin dituzte, hormigoizko bide ugari hondatuta gertatu direlarik.

Batzuk tasa ordaindu ez arren lasai-lasai ibiltzen direla kontutan hartuz Udaletxeak erabakiak hartu ditu. Eraba-

kita zegoen araua bete ez duten baso jabedunek, baso zainaren baimenean agertzen diren kubikoen arabera, tasaren likidazioa bidaliko zaie, ordainketa eskatuz. Matarrasa eta entresaka egiteko Udalarren baimena beharko da, hormigoizko biderik erabiltzen ez bada ere baimen hau beharko da. Basozaindariari lizentzia eskatu

aurretik Udaletxeko baimena lortu eta tasa ordaindu beharko da. Lanak bukatutakoan pista eta bideak garbi utzi beharko dira. Udal baimenik gabe bideak erabilzen dituztenek, ateratako kubikoen arabera tasa kobratuko zaie, %25eko errekar-guarakin.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Uztail eta irailean AEKko barnetegia izango da

Aurreko udan bezala, aurten ere, AEKko barnetegia antolatuko da Elgetan. AEKk eskola zaharretan konponketa batzuk egiteko eskaera egin du eta udaletxearen aldetik hauek egiteko inolako arazorik ez da egongo. Aurten barnetegikoak uztatilan eta irailean etorriko dira. Eskola zaharretan lo egingo dute eta eskola berri burutuko dituzte beraien klase orduak. Gure herrian euskaraz ikasteko aukera izango dute aurten ere AEKko ikasleek.



Lapurretak eta engainuak

- Bi etxetan eta farmazian sartu dira lapurrak-

Maiatzaren amaieran lapurretak izan dira apaiz etxean eta farmazian.

Elena Elkorok duen farmazian, bigarren aldiz lapurrtu dute oso denbora tarte txikian. Lehen aldi atariko atetik sartu ziren eta oraingoan berriz atzeko lehio bateko burnizko barroteak moztu ondoren sartu dira. Segurtasuneko kaxatik 80.000pta hartuta aldegin zuten.

Kantoikuan ere lapurreta saioa egon zen. Etxekoek harrapatu zuten lapurra gela batean eta gero, Ertzantzak eraman zuen, Uriburu aldeko etxeetan atxilotuta.

Engainuak

Bestetik etxeetara liburu saltzen doan gizon gazte baten berri eman digute. Gizona trajez jantzita doa eta liburuak alde zurretik ordain-

duz gero (25.000 pta), opari bat ziurtatzen du egunean bertan. Jende nagusiarengana zuzentzen da eta dirua hartu ondoren ez du libururik ezta oparirik ekartzen.



Farmaziara, burnizko barroteak moztuta sartu ziren.

Gaztetxean punta- puntako taldeak izango dira jaietan

Urtero bezala Elgetako Gazte Asanbladak antolatu ditu jaietarako Rock kontzertuak. Egunean Sr. No eta Flyshit taldeek emango diote hasiera jaietari. Barikuan Purr eta Nuevo Catecismo Catolico taldeen kontzertua izango da entzungai. Zapaturako Brutal Melody eta Ekon talde arrasatearrak etorriko dira.

Jaunartzeak ekainean

Ekainaren 14an izango dira aurten Jaunartzeak. 9 umek egingo dute beraien Lehen Jaunartzea Elgetako Ama Jasokundearen elizan. Meza eguerdiko 12:00etan izango da eta Jaunartzea egingo dutenak hauek: Maialen Arantzeta, Miren Ibarluzea, Ane Elortza, Pedro Estevez, Andoni Elortza, Hiart Bolinaga, Janire Lazkano, Eneko Maguregi eta Julen Olortua. Jaunartzerako Maria Jesus Letek prestatu ditu, azken urteotan beste talde batzuekin egin duen bezala. Etxekoekin batera egun ona pasa dezazuela.

**IBAIBA-
RRIAGA**

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

**BILTEGI
DENDA**

Zugandik
gertu behar
dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

**OSTATU
JATETXEA**
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Beheko kaleko lanak

Maiatzaren 25ean hasi ziran Beheko kalea zabaltzeko lanok hogeitun urtetan proiektuan egon ondoren. Bi eguneko lana nahikoa izan da hormak bota eta itxuraldatze sakona emateko kaleorri. Hilabeteko epean horma berriak eginda eta ortuok txukunduta egon beharko dute, gero kalea txukundu egingo da pasoa berrizteko eta egiteko diren etxe berriko lanak hasi daitezzen.

Abiadura Haundiko Trenari alegazioak egiteko epea luzatu.

Pasa den hileko Goibekokalen adierazten genizuen Abiadura Haundiko Trenaren planari alegazioak egiteko epea maiatzaren 27an bukatzen zela, baina Garraio eta Herrilan Sailak epe hori beste bi hilabetetan luzatu du, horrela jendeak denbora eduki dezan plana hobeto aztertzeko. Beraz, beste bi hilabetetan egin ahal izango dira alegazioak aipatutako Garraio eta Herrilan Sailean.

Soziedadeko Jaia

Maiatzaren bata urrin xamar gertuarren, Pagomendi Soziedadekoek egun horretan ospatu zuten bere eguna. Argazkian ikusi dezakezue umore honean joan zela bakalordu eta ondorena. Etziren falta izan Egiñoko tenorearen kantu ederrak ere (ez dakigu zertarako ekarri zuten Pavarotti San Mamesera bertan halako fenomenoak edukita)

Lehen Jaunartzeak

Hilabete honetan, hilaren 17an, Lehen jaunartzea egin zuten lau gaztetxok Angiozarko San Migel Goiaingeruaren Parrokian. Aurtengoan Jaunartzea egin dutenak honako hauek dira: Xabier Sarrao, Aitor Osa, Guruzne Garai eta Gaizka Marzan. Ondoren, bazkari ederrarekin bakoitzak bere familikoekin ospatu zuten. Zorionak!!

Eskola txikien eguna Zizurkilen

Datorren ekainaren 7an, igandea, Zizurkilen ospatuko dute "Eskola Txikien Eguna" Gipuzkoako hainbat herrietako eskolakideek. Angiozartik ere, beste urteetan bezala, jende dexente inguratzea espero da eta aurreko ekitaldietan lortu zuten arrakasta izan aurtengoan ere angiozartarrek bere antzerkiarekin.

Aurtengoan herri bakoitzeko agintariak bertaratu eta Eskola Txikien gaur egungo egoeraz jabetu daitezzen nahi da. Horre-

tarako Udal bakoitzera bidali da gonbidapena, batez ere herri handiago baten menpe dauden eskole-tako egoeraz ere jabetu daitezzen agintariak.

Egun ezin hobe beraz ondo pasatzeko eta, bide batez, agintariekin topo egin eta bakoitzaren iritziak azaltzeko, eskola hauek kalitatezko irakaskuntza eskaintzeaz gain herri zein auzoetako bizitza eta berezko kultura ere mantentzen laguntzen dute eta.

Elantxobeko eskolako bisita

Pasa den hilaren bukaeran Angiozarko eskolakoek Elantxobeko bisita izan zuten. Ur zikinen depuradora eta Hiru auzoko errota bisitatu zituzten eta gero elkarrekin jolasak egin. Argazkian denak elkartuta eskola aurrean.

Elkartruke hauekin jarraituz, maiatzaren 18tik 22ra bitartean ikasleok Lizarran izan dira Aginagakoekin batera. Bertan zaldietan eta piraguan ibili dira eta eskalada ere egiteko aukera izan dute eta ondo baino hobeto pasatu (ia etxekoekin ahaztuta egon ei dira...).



Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodrigues Da Cruz

IAPAM

Galdaragintza arina

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

Gatxa zan itxuria!!!!

Halako baten baiña, berandu ez. Bateronbatek hartu dotza antza. Ez dakigu zegaittik izan dan ermitxia beragaittik edo aurreko potzuagaitxik baiña, kasua da Enaitz Ezpeletak asmau dabela nungo ermitxia zan eskatzen giñuana. Kartatxo bat bialtzearren berak gura daben laguna-kin fango da afaltzera. Bestiok badakixue, segi idazten. Laster afarixak emotia aka-bauko da ta onena ointxe bertan idazten hastia izango da. Zer asmau bihar dan?



Asmau biharre-
kua oiñguan be
erreza da. Ze
demonixo da hau?

Erantzuna
bialdu Goibekoka-
lera. Salbador
kaleko 2. zenbaki-
xan gare, Kultur
Etxian.



Asteko lan orduak 40 ordutik, 35era?



Urbani Gallego
Bihargiña (39 urte)

Ideia ona da, gaiñera balitteke paruan arazua konpontzeko soluzi-ñua izatia. Huelgak egittian gaiñian, beste irtenbideik ez baldin badago egiñ biharko dira.

Neri asko inporta ez dostan gai bat da, baiña hala ta be, ez dot uste arazua amaittuko litzakenik. Hori baiño gauza gehixau egiñ biharko litzakez dana konpontzeko. Ez naiz huelga zalia konponketara allegatzeko.




Jesusita Turrigaztelu
Etxekoandria (84 urte)

Ondo dago baiña irtenbiderako zati bat bakarrik izango litzake hori, horrekin bakarrik ezingo zan parua kin amaittu. Huelgak egittia ez jata ondo pentsa-tzen, ez horregaittik ta ez beste ezergaittik.



Asier Morales
Bihargiña (37 urte)

Ondo pentsatzen jata, gaiñera geruago ta gutxiu hobeto. Hau erre-medixuau ez da nahikua arazua konpontzeko. Hau arazuoi konpontzeko huelga bidia biharrian beste bat hartu biharko litzake.



Juan Mari Azkarate
Bihargiña (52 urte)

Ondo pentsatzen jata errepartua egittia, baiña, ez dot uste horrekin arazo dana konponduko litzakenik. Lan eta jornal fijo bat izatia oso politta da. Huelgak egittia 35 orduak lortzeko azkenengua da.



Juana Beleta
Etxekoandria (64 urte)

Neri bardin pagatzen boste ondo pentsatzen jata lan orduak bajatzia baiña ala ta be arazuak hor segiduko leuke. Huelgak egittia ondo pentsatzen jata.

Eduardo Barrigon
Jkasia (21 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETATA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

Kopu bat

W.G.

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Patxi Taberna

VIVO

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

Janari

denda

Aries: Kotxia belozidadian ibiltzeko ez dok/don, baina hik ez daukak/daukan hori pentsatzen has-teko asmoik.

Taurus: Gaur esamiñ bat emongo jos-tek/josten ta batek jakik/jakin apro-bau ezkeru zer eskatuko doken/donan trukian.

Geminis: Behingoz lagaik/lagain bizikletia ta egixok/egixon kaso nes-kiari edo mutilai. Bestelaaa...

Cancer: Hainbeste zigarro, puro...erre doittuk/doittun ta oin damutzen hasi-txa be bahago; ez dok/don sekula berandu ixaten.

Leo: Aspaldixan pasatzen habilen depresio modukoai, dana hormona kontua dok/don. Ez hadi horregaitxik bakarrik buruauzetan ibili.

Virgo: Herritxik kanpora egotia era-kutsiko jostak/jostan zein politta dan Euskal Herrixa ta beran parajiak.

Libra: Pelotan jokatziaikin bakarrik ez dok/don ezer egitten; ligatzen be hasi biharko haiz.

Escorpio: Askotan onegixa haiz ta horrek ez jostak/jostan bape onik egit-ten. Begixak ondo zabalduta ibili hadi!

Sagitarius: Basarrixan edo etxian sar-tuta ez dok/don haixeik be hartuko. Azala ta zeure izatia be sikatuko jata-zak/jatazan.

Capricornius: Jaio barrixa emoten dok/don beti umekerixak egitten habil ta, ordua dok/don sasoiari sasoiakua egitteko ba.

Acuarius: Linea mantentzia kontu bat dok/don baiña, hazurrak bistaratzia itxura eskasa hartzia dok/don.

Piscis: Sekretuak gordetzeko ez haiz pertsona egokixena, baiña bihotz one-kua haizenez beti hiregana joten juat/jonat.

Iñaki Agirregomezkorta Tabernarixa (39 urte)

Ze moduz lan barrixakin? Oso ondo.

Ze da hemen lanetik gehixen gusta-tzen jatzuna? Zerbitzia ta jentiaikin tratatzia.

Tabernari ala taxista nahixau? Bixak ordu asko sartzekuak dira baiña tabernarixan lana nahixau.

Zein da onduen gertatzen dozun platua? Arraiña.

Hemen bizimoduan betetzia nahiko ziñuken amets bat? Osasuna beti eukitzia.

Bizitzeko kalia ala basarrixa nahixau? Bixak dira polittak baiña basarrixa trankillaua da.

Ardau on bat? Ardanza edo Muga.

Ze kontzertu izan da azkenengo entzun dozuna? Mutrikun, bertako talde bat.

**Zenbat urte bigotia-kin? 16 bat urte.
Zenbat diru eskatu-ko ziñuke, bihurtu-ta kendu biharko baziñu? Eskatu eze-bez, kendu bihar bada kendu.**

Elgetak dakan akats bat? Aparkatzeko lekuak.

Egunak dakan momentuik gusto-kuena? Eguardi partia.

Zer pentsatzen jatzu, tabernarixoi jartzen dabizen legiak? Ez jata ondo pentsatzen ordu erdi baten gora-beheran hola ibiltzia.

Zinian ikusitxako azkenen-go pelikulia? Ez naizgogo-ratzen.

Andria, takoiekin ala barik nahixau?

Takoa dotoria da baiña bere tamaiñuan.

Kotxe bat eroste-kotan, zein erosiko ziñuke? Mercedes.

Ze pentsatzen jatzu Athletixak kanterriakin segitzia? Ondo pentsa-tzen jata baiña azkenian kanpotik ekarri biharko dira jokalarixak.

Zein lehenau, Erreala ala Athletixa? Bixak alkarre-kin gelditzia nahi dot baiña bat aukeratzekotan Erreala nahiz eta hola izan ez dan.

Tabernari moduan jubilatzia pentsatzen dozu? Ahal bada ez baiña ikusikou...



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156


Moises Arantzeta: "35 orduko lan astea justizi soziala da"

Moises Arantzeta, ELA sindikatuan liberatua dago azken 15 urte hauetan. Elgetar honek, 43 urte ditu eta Deba Bailarako metal arduraduna da. Horretaz gain bere zeregina, pakto eta konbenioetako negoziaketetan aritzea da besteak beste. Moises ELA-ko idazkaritzako partaidea da eta baita Kontseilu Nazionaleko Konfederakuntzako kide ere. Urte hauetan enpresa eta langileen mundua ongi ezaugu ditu eta horretan ari da, "etengabeko lana da langileen eskubideen berri ematea eta lanik ez dutenentzako bideak zabaltzen aritzea"

Zein da Elgeta mailan enpresetan aurkitzen duzun egoera?

"Elgetak momentu gogorak pasatu ditu azken hamarkadetan, Modelo itxi zen, Kooperatiba ere

bai, gero Zabala Hermanosek jasan zuen beherakada... 80ko hamarkada oso gogorra izan zen Elgetan. Orain berriz poligono industrial berri honetara enpresa asko etorri da eta langile asko dago bertan, asko kanpotarrak. Langabezi maila Elgetan ez da beste toki batzuetan bezain premiazkoa, Eibarren bestean ez behintzat, baina ezin ditzakegu ahaztu pasatutako momentu txar haiek. Bestetik enpresa txiki asko dago 25 langile edo gutxiago dituztenak, eta horko problema, ez da beste herriengandik asko bereizten, prekarietate handia dago. Egunero ikusten ditugu arazoak eta oraintxe ere izan ditugu horko enpresa batekin. Baina egunero saiatzen gara konpontzen, adibidez zonalde horretako enpresa handiena denak, Recidek, ez ditu oraindik



"Langileak elkartu egin behar dira zerbait lortzeko eta batik bat norbere eskubideak ezagutzeko".



"35 orduko lan asteak ez du konpetitibitatea gutxituko denik esan nahi, hor dago Alemania".

hauteskunde sindikalak egin eta orain hori lortu asmoz gabiltza. Orohar prekarietatea handia da: kontratu mailan, soldatean, eguneroko harremanetan..."

Zein da irtenbidea hau jasan behar duenarentzako?

"Horrelako gauzei aurre egiteko antolakuntza guztiz beharrezkoa da. Langileak sindikalgintzara hurbildu behar dira eta protagonistak izan. Bertan ideiak planteiatuz eta bideratzeko neurriak aurkituz. Pausu bat eman behar da, bestela desinformazioak eta batasun ezak, injustizi askotara eramaten gaitu. Gazteen kasua garbia da: nola-halako kontratuak dituzte eta eskubideak ez dituztenez ezagu-

tzen, lan orduz kanpoko ordu pilo bat sartzen dituzte eta enpresariaren eskakizunen aurrean ez dute zer eginik eta zer esatekorik. Uste dut oinarri falta handia dagoela eta informazio hau eskolatik bertatik ematea komeniko litzateke".

Langileek eskubideak ez dituztenez ezagutzen, lan orduz kanpoko ordu pilo bat sartzen dituzte

Zein motatako kontratuekin ari da jendea lanean?

"Oraintsu atera da El Diario Vascon artikulua bat, lanpostuen erdia kontratu finkoa dela eta gainon-

Elgetan lanpostu berriekin lana sortu den arren, langileen egoera ez da hobetu, kontratu eta soldak oso txarrak dira

tzekoak hala moduzkoak. Praktiketara jende asko dago, obrako kontratuekin beste pilo bat urteak eta urteak horrela pasatzen dituenak. Zabor kontratuak dira orokorrean eta batzuk, legez kanpoko kontratuak dituzte. Guzti horri aurre egin behar zaio. Guk informazioa eta aholkularitza lanak egiten ditugu eta juridikoki ere parte har-tzeko ahalmena dugu”.

35 ordu, berdin irabaziz eta lanpostu berriak sortzen?

Historiara begiratzen badugu, 1905ean jornada 3.500 ordukoa zela ikusten dugu, orain, 1748 ordukoa da metal arloan. Esperientziak erakutsi digu, enpresak ez direla isten lan orduak gutxitzeagatik, enpresak isten badira gestio txarragatik, inbertsiorik ez dagoelako da... Barne Produktu Gordina edo Estatuaren aberastasun indizea %4koa izan da, 1970etik ez zegoen horrelako datu onik; gero inflazioa ere baxua izan da, %2koa, burtsak gora egin du eta enpresak diru asko ari dira egiten. Datu makroekonomiko hauekin, liberalismoaren zantzu argi hauekin, jende asko dago oraindik lan gabe eta oraindik orain lan asko sortzen ari direla esaten ari dira, baina lan horren baldintza negarga-

rriez ez dute ezer esaten. 35 ordukin bilatu nahi duguna, justizi soziala da, hau da, lana banatzea eta lan egitea nahi duen orok aukera hori izatea. Bestela ez dago irtenbiderik,


tu nahi badugu.

Europar zein bide ari dira jarraitzen?

Frantzia oraintxe onartu dute 35 orduko lan astea, Alemanian metal arloan 3

eta guk ez dugu nahi horrelakorik, “moketako” sindikalismorik, telebistakorik.

Gizartea prest al dago lana banatzeko, gizarte



Moises Aranzeta elgetarra ELA sindikatuko liberatua da.

orain gaudenak lan gehiago egiten badugu, lan orduz kanpoko orduak sartuz. Neoliberalismoaren ibilbide horretatik aldendu beharra dago irtenbide bat aurki-

urteko esperientzia dute eta horregatik konpetitibitatea ez da gutxitu, mundu mailan potentzia haundiak dira. Hemen berriz, sindikalismoaren moteltasun eta ahulezia dira arrazoi nagusienetakoak. Sindikalismo estatala, aurrekontuetara entxufatua dagoela esan ohi da. Honi eskuinak agintzen duela gehituz, normala da dagoen egoera edukitzea. Euskal Herria txikia da eta LAB-ekin dugun harremana onaden neurrian UGT eta CCOO-ekin ez da berdin gertatzen. Gure ustez hauek amore eman dute

aldaketa honetarako?

Elizakin, eskoletan aritu gara mezu hau zabalduz. Nahiko berde dago baina jendea interesatuta dagoela ikusten dugu. Medio handiek neoliberalismoa ahal bezala sartzen digute, telebistaz, mezu publizitarioekin... Gu honen kontra goaz eta gizarteko talde desberdinak honek suposatzen duen kalteaz ohartaraztea beharrezkoa da. Esperantza dugu hori lortuko dugula, Euskal Herria txikia da baina gauza asko lortzen dira, etorkizunerako ate bat da, egoera honi buelta emateko aukera bat.

Neoliberalismoari aurre egin behar zaio eta 35 orduko lan asteari eutsi. Lana banatzea da aukera bakarra, justizi soziala da hori. Gizartea horretaz ohartu behar da, egoera hobetu nahi badugu

Urretxuko Aikur Erlategia

Aikur,Urretxun dagoen baserri bat da,bere inguruan erlategi bat du. Erlategi honetan erlauntza asko daude,mota askotakoak. Urretxun maiatzaren 12an egon ginen bederatzit t'erdietatik, hamabiak harte eta egia esateko oso ongi pasatu genuen. Zer egin genuen kontatuko dizuegu. Lehendabizi txabola batean sartu ginen, han barruan hiru erlauntza zeuden, bat laukia zen, bestea luzea eta estua zen, bestea berriz lauki estua. Andereñoak esan zigun hiru motatako erleak dau dela:

- Erregina.
- Erlamandoa.
- Langilea.

Erlauntza batean zegoen erreginak bizkarra horiz margotuta zuen beste erleetatik bereizteko,baina besteetan zuk topatu behar zenuen. Zer lan egiten dute erleek?

Erregina,beste erleak baino luzeagoa eta beltzagoa da. Hau behin bakarrik ernaltzen da baina egunero 1500-2000 arrautza ipini dezake

Erlamandoak berriz, erregina ernaltzen

du ez du ezer gehiago egiten,orregaitik du izen hori.

Langileak berriz lan pila bat egiten dute,erreginari eta erlamandoari jaten ,eman erregina zaindu polen edo nektar bila joan, erlauntza zaindu ,larbei hau da arrautzei zaindu eta jaten eman,erlauntzak eztiz bete etab.

Txabola barruko erlauntzak ikusi ondoren kanpora irten ginen erlauntza deberdinak , polena eta nektarra ze landare motetatik hartzen zituzten ikustera.

Landareak eta erlauntzak ikusi ondoren etxe barrura sartu ginen erleei buruzko bideo bat ikustera bideoa ikusi ondoren andereñoak esan zigun erleak ere bazituztela etsaia. Adibidez: Txoria, euria...

Batzutan eugandilak eta saguak erlauntzetara sartzen direnez erleek hil egiten dituzte baina eurentzako oso pisutsuak direnez propoliz estaltzen dute gorpua usainik ez botatzko.

Nola ateratzen da eztia ?

Lehendabizi erlauntza edo kaxa beteta dagoenean beste kaxa bat jarri behar zaie azpiko kaxaren gainean , goiko kaxa beteta dagoenean jantzi espezial bat jarri behar da eta goiko kaxa kendu ,bi kaxak kentzen badira erlea hil egingo da ,janaririk gabe geldituko delako negurako. Ondoren panelen gainean eukitzen duen argizari zatiak laban batekin kendu eta panelak makina batera sartu behar dira. Han ezti guztia irtetzen da

paneletatik,baina eztiarekin batera argizari zati txoak jausten dira. Orduan egun batzukutzi behar zaizkio eztiari argizaria goian gogortuta gelditzeko , errazago kentzeko argizaria eta azkenik potetara sartu.

Nola egiten dira kandelak?

Erabili behar diren gauzak:

-Argizari taula bat.

-Algadoizko metxa zati bat.

-Argizari zati bat. Ba-

na argizaria urtuta egon behar da eta beroa.

Nola egin?

Argizari tabla hartu eta algodoizko metxa zatia argizari taularen alde batean jarri. Algadoizko metxa erdian duelarik argizarizko taula, borobildu.Hori egindakoa lapikotan sartzen joan, baina batean sartu eta gero hoztu eta berriz sartu. Azkenik gorputza hartzen duenean zerbaitekin apaindu. Adibidez zelofan batekin edo lazo batekin.

5. maila



IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatu: 247262
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. eta Faxes: 768078

JOGURRAREKIN ETA ALMENDREKIN EGINDAKO BIZKOTXOA

Sukaldaria: Xabier Ezpeleta
Mendi-mendia elkartea



NOLA PRESTATU:

Alde batetik, ontzi batean arraultzak irabiatu eta, azukarra eta jogurrak gehitu. Bestetik, uruna, almendra eta legamia nahastu eta aurrez egindako nahasketarekin batu.

Labara sartzeko ontzia gurinarekin gantzutu eta urunarekin haustu. Gero, prestatutako nahasketa bertara bota. Labean sartu 175 gradutan, ordu erdi baterako. Eginda dagoenean kanpora atera eta hozten laga.

Bitartean, krema prestatu: litro bat esne kanela-ekin berotzen ipini. Ontzi batean esne apur bat, uruna eta gorringoak nahastu. Azkenik, esnea egosten denean, nahasteari gehitu eta gorputza hartu artean berotu.

Bukatzeko, bizkotxoa erditik ebagi eta krema zabaldu. Estali eta azukarra birrindua gainetik bota, itxuratu.

OSAGIAK (8 lagunendako):

- 6 arraultza
- 2 jogurt (jogurt potoa neurri gisara erabili)
- 3 potekada uruna
- 3 potekada almendra xehetua
- 4 potekada azukarra
- 2 poltsatxo legamia

Krema gertatzeko osagaiak:

- 4 gorringo
- 1 l. esnea
- 4 koilarakada uruna
- 150 gr. azukarra
- kanela bat



GOMENDIOAK:

- Neurriak: jogurt potoarenak erabili beharra dago.
- Erabilitako almendra xehetuak laboratutakoan olio askatzen duenez, bizkotxoa mamitsua geratzen da.

**M^A Karmen
Lenzeria**
Lenzeria eta
kosmetika gaiak
Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

**E
R
HARATEGIA
A
S
T
I**
San Roke 6
Tel: 768168.

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

**Trokelak eta estanzioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

Angiozar eta Txapela sailkapen buru

Txapelketa erdia baino gehiago jokatu denean, finalerdietarako urratsa eman dezaketen taldeen izenak oraindik ez dakizki-gu.

Talde guztiek dituzte aukerak, baina azkenean lau besterik ez dira sartuko azken txanpan. Momentu honetan Angiozar eta txapela dira buru, baina Angiozarrek partidu bat gehiago jokatu

du. Neskei dagokienez, aipagarria Joixon Bertanekoek lortu zuten garaipena zapatu arratsaldean. 13-0 irabazi zieten Hi Argi Ibili taldekoiei.

Gauzak honela, hauek dira pasa den zapatuko emaitzak eta behin-behineko sailkapenak:

Urien - H.H.H. 5-4
Angiozar - Bar el Arco 5-0
Txapela - Alferrak 2-1

Futbito Sailkapenak

Mutilak

Taldea	Punt.
Angiozar	12
Txapela	12
Bar el Arco	9
Alferrak	9
Urien	8
Bar Paseo	4
HHH	2

Neskek

Taldea	Punt.
Joixon Bertan	8
Hi argi ibili	4

Eneritz Urizarbarrena, Joixon Bertaneko jokalaria



-Noiztik txapelketan parte hartzen?

Seigarren mailatik, zazpi urte daramatzat jokatzen. Oso gaztea nintzenetik.

-Aukera izanez gero kanpoko talde baten jokatuko zenuke?

Bai, lehen ere Arrasaten jokatu izan dut.

-Zer moduko antolaketa iruditzen zaizu? Zergatik?

Txarra. Ez digute arbitrorik ipintzen.

-Zuek, zuen partiduak arbitratzea ez al da posible?

Ez, bi neska talde bagaude nork arbitratuko digu? Neskendako arbitro bat izendatua egon beharko litzateke.

-Ordutegiarekin konforme?

Beti jokatzen dugu lehenak edo azkenak, baina nik nahiago dut lehenengo jokatu.

-Zergatik ez daukazue kamisetarik?

Ba, ez dakit. Niri berdin zait, horregatik ez gara gutxiago.

-Nesken partiduak ikustera joaten da jendea?

Partidua, beste partiduen tartantokatzan ez bada ez dator jende asko.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Elkorok ezin izan zuen Eugi garaitu

Aitorrek eskuan izan zuen baina azkenean Nafarrarentzat izan zen garaipena

Aurten ere ilusioz beterik zegoen Elgetako zaletua Aitor Elkorok Aspe enpresako finalera eta eskuz banakako finalerdietara iritsia zen eta. Denok espero genuen, nahiz eta jakin oso zaila izango zela, duela urtebete lehen mailako debut urtean egin zuen bezala finalera helduko zela eta bide batez berriz ere plaza beteko genuela ongi etorria egiteko. Finalerako txartela lortu ez arren omenaldia merezi du Elkorok. Lehen bi kanporaketetan Capellan eta Titin gainditu ondoren - Adarragan, beraien etxean- finalerdian Eugiren aurka neurtu zituen indarrak. Emaitza denok dakizuen bezala 22 eta 15 izan zen Agoitzkoaren alde. Baina Aitorrek ongi jokatu zuen, oso ongi. Jakina da Eugi eskuz banaka jokatzeko eginiko pilotaria dela eta izugarritzko maila erakutsi

duela aurtengo txapelketan. Hori guztia kontutan hartuta eta ikusirik Eugik partiduko zenbait momentutan pasa zituen hestuasunak -tanto batzutan leher-leher eginda amaitu zuen- pozik egoteko modukoa da. Datorren urtean gehiago.

Arantzeta lesionatua

4 t'erdian geratzen zitzaigun ordezkari bakarrak ere agur esan dio txapelketari. Eñaut Arantzeta txapelketa bikaina burutzen ari zen Aranatzeko Errandonearen aurka jokatzeko ari zen partiduan zaintiratu batek partidua bertan behera ustera derrigortu zuen arte. Aurretik Eskoriatzan jokatuak kanporaketan ez zuen inolako arazorik izan Gorrotxategi zumarragatarra gainditzeko (22-8).

Denboraldi erdian

Aurreko alean esan bezala, Askasibar Arabako Itzulian aritu zaigu. Itzulian postu politak eskuratu zituen, etapa baten 11. eta beste baten 12. egin zuen. Hala ere, ezin izan zuen lasterketa amaitu. Azken egunean eguraldi txarra zela-eta (hotz izugarria egin zuen), lasterketa uztea erabaki zuen. Bira guztira 30 pertsona inguruk amaitu zuten. Hurrengo astean Burgosa joan zitzaigun, 7. amaitu zuelarik bertako proban.


Azken lasterketak, Abadinokoa eta Atarrabiako Euskadiko txapelketa izan ditu. Abadinon 10. bukatu zuen eta Euskadiko txapelketan 23. ELITE mailako sailkapenari begiratu.

Arangurennek berriz, 29. amaitu zuen Arrasateko lasterketan eta Urrietakoan berriz 32., irabazlearengandik minutu eta erdira.

Estanpaciones Elgetak Eibarko txapelketa eskuan

Azken txanpara iritsi da Eibarko saskibaloia txapelketa. Badira zortzi hilabete liga hau urrian hasi zenetik eta aurki bukatuko zaigu. Elgetar jokalariek, 27 ihardunaldi jokatu dituzte orain arte porrot bat bakarrik jaso dutelarik. Gainera sailkapen nagusian lehenengo postuan dira eta bigarren bi punturen arteko aldea ateratzen diote (garaipen bat).

Liga amaitzeko partidu bat besterik ez zaie falta, eta garaipena erdietsiz gero, duela lau urte legez, garaikurra Elgetara ekarriko dute. Baina gauzak ez dituzte batere erraz izango; jokatu behar duten partidua bigarren dauden kontra izango baita. Esan bezala, bi taldeen arteko aldea bi puntutakoa besterik ez da, eta partidua galduz gero egongo zen berdinketa baten aurrean elgetarrak kaltetuak izango ziren (bigarren geldituko ziren). Beraz, irtenbide bakarra: garaipena lortzea.



Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85


Faxa: 789043

F . O . R

Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38



salvador
19
behea

OHITURA BIHURTUZ: ASENTZIO EGUNA

Elgetar eta angiozar askorentzako ohitura da dagoeneko Aseztzio egunean biltzea. Aurten maiatzaren 24anizan da jaia. Oinez, pasiatzen, autoan alperrenak... jende gehiena meza orduan bildu zen. Goiztiarrenek, salda eta txorizo otarteko ederra jateko aukera izan zuten Gure Bordan. Dantza saioa meza ondoren izan zen eta Bergarako Trikitilari eskolako dantza erakusketaz gain, herriko haurrek beraien abilezia erakutsi zigu-

ten entsaiatzen hainbeste ordu pasatu ondoren. Gurasoak eta familiakoak hantxe zeuden, pozik, ttikien trebeziak txalo-tzen.

Herri baz-

karian 90 lagun inguru. Denak bata bestearen ondoren batu-batu egin da ho-

tzari eta haize gogorrari aurre egiteko. Baina egun honetan asko dira familia guztiarekin bertan bazkalitzen dutenak ere. Hurrengo urtean gehiago!


Bazkalaurretik: Aseztziara heldu eta zezerjan eta edandakoan, arrantza txapelketa ikusi. Gero, Elgetako dantzari eta Bergarako Azpiazu dantza taldekoekin gozatu. Dantzarien artean zegoen laugarren aldiz Euskadiko txapel-dun izandakoi bikotea.



HAIZEA
TABERNA





giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Bazkalorduan: Kriston girua!!! Entsalada, gisatua, flana, pastela, kafea, patxarana... Sukaldariak gogotik saiatu ziren eta han zegoen jendeak eskertu zuen. Menua primerakoa eta gainera eguzki epeletan.



Bazkalostian: Aukera asko. Batzuk lo, beste batzuk "Azucar Moreno"ri lekua kendu guran. Erromeria giroa ere bazen eta dantzarako ez zegoen aitzakiarik. Gainontzekoak patxaran eta patxaran artian bazkalosteko tertulia.

Eguzkia lagun zela oraindik dena batu eta Elgetara! Hurrengo eguna bixamon eguna.





Kirola abertzale

lara ei datoz. Akabo, salbauta dago Euskadi horrekin!

problemak. Danak geure onerako ei dabiz, bai enpresa batekuak ta bai bestekuak, baiña diruak ondo banatu

Aurtenguan oso egun inportantia izan da San Isidro eguna. Gero ta baserri gutxiau daozenian, danok gero ta kale-tarruak gazenian, etorri da horremadrildar santu baserritarrorren eguna, eta emon dotse argittasuna Bilboko frakamozdun mutil guapuoi ta hor ei doiaz European zihar gure hau herri zahar hau



Ta gainera Euskadik aurrera egitteaz gain EUSKERIAK be aurrerakada izugarrixa. Lehenengoz euskeraz berba egiñ dabe erderazko Euskal Futbolistan.

Ene jesus, konfundidu naiz berriro be! Ta ez jaku inor hasarretu, ez PP, eta ez UA; danak konforme. Europara fateko eus-

keria polittaua izango dalako izango da, edo ez dakitt ba.

Honek guztiok ikusitta bildurrez aidian nago. Futbola hain inportantia bada, kapaz dira horrek telebisiñokuok datorren urtian Elorrixoko futbol partiduak be botatzeko, ta orduan akabo! Danok aguantau


biharko dogu inbentua.

Dana dala, poztu gaittezen, geu iñozente edo kaskar samarrak baga be, gure deportistak oso onak dira ta horrekin dana konponduta dago. Urtian behin irabaztiakin kontsolatzen ga ta gehixegi sufridu bariik beste urtebete be aguantatzeko kapaz gara.

Ikusten, Aitorrek galdu egiñ eban, baiña bestiekin kontsolauta gaozen ta ez da haiñ tristia be izan. Oiñ telebisiñuekin izango dira

artian partidua ikusi barik geratuko gara. Espero daigun finalerako diruok bihar dan moduan banatuko dittuela ta behingugaittik fraka luzedun deportistak ikusiko dittugala.

Jabier Arantzeta



famau guran. Hori Bizkaixan, baiña Gipuzkoan be badago zena poztu, gure mutillak, Aleman ta guzti, hirugarren geratu dira, ta hori be oso poztekuia ei da. Ta, hori guztiok gutxi balitza be, Arabako gixajuok lehenengo mai-




Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



KONTXI ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009



Argazkia: Rosario Galdos

Aizkorriko puntia

A

u erretratuau, 1938. urteko ekaiñeko 31an etarata dago. Ia badia urte batzuk hor erretratuan ageri diazenak Aizkorrirako igoera egiñ ebela. Etara kontua, orduan be gona ta guzti, ta ez oiñgo moduan txandala edo fraka motzekin, mendira egun pasa. Gaiñera konturatuko ziñien moduan, bertako danak emakumezkuak dira ta hori han sasoiñ ezin zan pentsau be egiñ, orduan emakumezkua etxian sartuta egoten zan, umiak hazi eta familixia gobernatzen.

Eskerrak gaur egunian, hori kontuoi piskat aldatu dala, nahiz ta oindiokan be badagon ze aldatu.


Beste ipuiñik barik hemen onduan daukazue bertakuen izen-abizenak:

Eskumatik ezkerrera tente: **M^a Luisa Txanboli, Mertxe Elgoro, Mertxe Txanboli, Rosaria Galdos.**

Eskumatik ezkerrera jarritta: **M^a Luisa Errementerikua, Angeles Errementerikua.**

ARABA EUSKARAZ 98

ARABA - ZALDUONDO EKAINAK 7



ARABA EUSKARAZ
98


orain dugu garaia

antolatzaileak



Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564

